

ANDOAINGO UDALA

Dirulaguntzen deialdia

2027 URTERAKO UDAL EGUTEGIA OSATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA ARAUTZEN DUEN OINARRI OROKORRAK,

Aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, Andoaingo Udalak Andoaingo 2027 urterako udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako dirulaguntzak arautzen dituen oinarri orokorrak onartzea proposatzen du.

Kontuan hartu dira Andoaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Alkatetzaren 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 Ebazpenaren bidez onartua (1. lerroa, Idazkaritza Artxiboa), eta Andoaingo Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantza, 2014ko maiatzaren 27ko GAO on argitaratua eta geroago aldatu eta 2022ko martxoaren 22an argitaratua.

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua Andoaingo 2027 urterako udal egutegia osatzeko argazki lehiaketarako dirulaguntzak arautzea da.

2. artikulua. Eskumena duen organoa

Deialdia Andoaingo Alkatearen ebazpenaren bidez onartuko du eta deialdiaren zabalpena eta argitalpena bermatuko ditu. Instrukzioa Udal Artxiboari dagokio, eta lehiaketaren emaitzaren erresoluzioa, epaimahaia bildu ondoren, Alkateari dagokio ere bai.

3. artikulua. Araudia

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen Andoaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Alkatetzaren 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 Ebazpenaren bidez onartua (1. lerroa, Idazkaritza Artxiboa), eta Andoaingo Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantza, 2014ko maiatzaren 27ko GAO on argitaratua eta geroago aldatu eta 2022ko martxoaren 22an argitaratua.

Deialdi honetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

4. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntza jasotzeko onuradunak, lehiakideak, 16 urtetik gorakoak eta Andoainen bizi direnak izan beharko dira, eta gehienez 3 irudi aurkeztu ahal izango dituzte pertsona bakoitzeko.

5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza funts propioekin finantziatuko da, 1 0100.480.920.00.01.2026 partidaren kargura (279 kodea) 1.800 eurotan, eta egutegiaren hilabetea irudiztatzen duen argazkiaren argitalpenean zehaztuko da, eta 150 euro Salkini atxikitako dendetan gastatzeko bonuetan, saritutako argazki bakoitzeko. Sariak pertsona bakoitzeko sari bakarrera mugatuko dira.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Lehiakideek deialdian proposatutako gaiarekin lotutako irudiak aurkeztuko dituzte, aurtengoa "Lau urtaroak Andoaingen" izango dena. Ez da onartuko inolako indarkeria-mezurik, ez politikarik, ez sexu-bereizkeria edo arraza-bereizkeria sustatzen duen adierazpenik. Argazkiek argitaragabeak izan behar dute. Argazki bat aukeratuz gero, bertan agertzen diren pertsonak identifika badaitezke, pertsona horien berariazko baimena aurkeztu beharko da egutegian argitaratzeko.

Dirulaguntzen onuradunek, beti ere, Andoaingo Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014ko martxoaren 27an onartutako Dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantzaren 12. eta 21. artikuluetan jasotakoak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantzaren eta Andoaingo udalaren zergak eta ordainkizunak egunean izango ditu.

Lege horren 39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 6.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Andoaingo Udalak zuzenean kontsultatuko du, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, eskatzailea Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurrean bere betebeharren ordainketan egunean dagoela. Halaber, hala balegokio, eta interes-dunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzan familia ugari titulua eta Gipuzkoako Foru Ogasunean aurreko ekitaldiko errenta-aitorpena.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkezteko behartu ahal izango du.

7. artikulua. Eskaera

Lehiakideek Udalaren web orrian dagoen eskabidea bete beharko dute

8. artikulua. Aurkezteko epea

Eskabideak 2026ko urriak 1etik 31ra bitarteko epearen barruan aurkeztu daitezke.

9. artikulua. Dokumentazioa

Eskaerarekin batera, gehienez 3 irudi aurkeztu beharko dira, argazkien formatu honi jarraituz: bereizmen handiko artxibo digitala: formatu horizontala, 2-10 MB gutxienez, zabalera 4350 px altuera 2900 px. 300 ppp-ko bereizmena. Adobe RGB, JPG formatua.

10. artikulua. Emateko prozedura eta baloratzeko irizpideak

Alkatearen ebazpenaren bidez epaimahaia bost pertsonak osatuko dute: Kultura Batzordeko bi kidek, argazkigintzarekin edo artearen munduarekin zerikusia duten bi pertsonak, eta Udal Artxiboko arduradunak, edo hark eskuordetzen duenak, instruktore bezala ariko dena.

Argazkiak aukeratzeko garaian kontutan izango dira gaiarekin egokitasuna, originaltasuna eta kalitatea, eta dagokion hila betearekin lotura, besteak beste.

Erabakia deialdiaren 2026ko azaroaren 15a baino lehen jakinaraziko da. Egutegirako 12 argazki aukeratzeko ez badira, epaimahaiak beretzat gordetzen du beharrezkoak direnak hornitzeko ahalmena.

Hautatutako 12 argazkiak Andoaingo Udalaren jabetzakoak izango dira.